

URKIKO AUZOKO BILERA (Urkiko parrokia, 2012/11/22)

Polonia Etxeberria kaleko 14an zegoen denda baten eskailerak kentzea eskatzen dute, espaloia ren zati bat hartzen dutelako.	Hirigintza	Eskailerak kendu egin ziren
Errekatxu-Sansaburu aldean ez dagoela aparkalekurik eta kexatu egin dira. Errekatxuberriren obrak noiz hasiko diren galdetu dute.	Hirigintza	Errekatxuko aurreikuspenak ez dira beteko. Konpentsazio Batzordea desegin egin da. Udala eremuaren problematika aztertzen ari da soluzioak topatzeko.
Pegorara aulki gurpildun batean dagoen pertsona nagusi bat sartzeko arazoak daudela azaldu dute; baita eguneko zerbitzua egiten duen anbulantzia hartzeko ere.	Hirigintza	Arrapala bat egiteko aukera aztertu da baina ez da bideragarria. Arrapala horren malda (%18) irisgarritasunari buruzko araudia luze gaindituko luke (gehienez %8)
Polonia Etxeberria kaleko 24ko biragunearen aldea zabaltzea eskatzen dute	Obrak	Gaia aztertu da eta ez da beharrezkoa ikusten espaloia zablatzea
Asteburuetan, Txaltxa zelai aldean, udaltzain gutxi ibiltzen dela eta txakurrak solte ibiltzen direla azaldu dute.	Udaltzaingoa	Zonaldean Udaltzaingoaren presentzia gehitzen da, eta espresuki agintzen zaio txakurren jabeei lotuta eraman behar dituztela informatzeko
Errekatxu-Arane bidean ibilgailuak azkarregi ibiltzen direla oharteman dute. Iturri parean ere, lurrean abiadura murrizteko bandak jartzeko aukera aztertzea eskatu dute.	Udaltzaingoa	Sansaburutik Errekatxura doazen eskaileraren inguruan zebra bide goratu bat ipini behar da.
Herrian pintada asko daudela salatu dute.	Udaltzaingoa	Udaltzaingoa gertaeraren lekuko denean bakarrik jar dezake isuna. Arduradunak harrapatzen dituztenean, identifikatu eta zehazpena jartzen die
Polonia Etxeberria kaleko 20tik 26ra bitartean ibilgailu bi abandonatuta daudela oharteman dute, Vectra bat eta Sierra bat.	Udaltzaingoa	Bi ibilgailuak erretiratuak izan ziren

URKIKO AUZOKO BILERA (Urkiko parrokia, 2012/11/22)

Txaltxa Zelai aldean, lorategia barne, txakur kakak daudela salatzen dute	Udaltzaingoa	Udaltzaingoa txakur kakak jasotzen ez dituzten jabeei isunak jartzeko agindua dute
Ubitxan, errepidea estutzen den lekuan, ibilgailuen lehentasunezko seinale bat ipintzea eskatu dute	Udaltzaingoa	Lehentasunezko seinalea ipinita dago
Txaltxa zelai kalearen amaiera aldean dagoen oinezkoen pasabidean autoendako abiadura murrizteko lurreko banda jartzea eskatu dute	Udaltzaingoa	Trafiko Batzordeak txostena egin zuen eta ez zen onartu ez zelako beharrezkotzat jo aurreko zebrabideak, 25 metro ingurura dagoena, badaukalako abiadura murrizteko banda
Portalea eta DIA parean autoak ilara bitan aparkatzen dutela eta, kexatu egin dira.	Udaltzaingoa	Ahal den neurrian kontrolatzen da
Armagin kaleko 2. etxearen pareko oinezkoen pasabidea arriskutsua dela salatu dute. Abiadura-murriztailea edo oinezkoen pasabide goratua egiteko aukerarik dagoen aztertzea eskatu dute, baita "zona 30" seinaleak ere	Udaltzaingoa	Trafiko Batzordeak aztertu zuen baina ez zen proposamena onartu azkar ibilitzeko zonaldea ez denez abiadura murriztatzailea jarriz gero zaratak bizilagunei traba egingo lieke
Txaltxa zelai kalearen amaiera aldean dagoen oinezkoen pasabidea arriskutsua dela azaldu dute (edukiontziak daudenez, ez da ondo ikusten). Oinezkoen pasabide goratu bat egitea edo autoendako abiadura murrizteko lurreko banda jartzea eskatu dute	Udaltzaingoa	Edukiontziok atzera bota dira eta arazoa konpontzen ez bada erretiratu egingo dira
Txaltxa zelaian, arketa labanak daudela eta ez dutela irrist ez egiteko zinta jarrita adierazi dute	Zerbitzuak	Azterketa egin ostean, apirilean irrist ez egiteko zinta ipini zen Miguel de Aguinaga eta Txaltxa Zelai arteko izkinan
Errekatxu kaleko 3ko orubea egoera txarrean dagoela eta garbitzea eskatu dute, baita Montecasino tabernaren pareko parkea ere	Zerbitzuak	Jabea garbiketaren kargu egiten ez zela ikusita, brigadak orubea garbitu zuen eta bertako sasiak kendu zituen.

URKIKO AUZOKO BILERA (Urkiko parrokia, 2012/11/22)

Bar Nuevo tabernaren ondoan dauden edukiontziak, pedala dutenak, hasieran jartzea eskatu dute aldapa gutxiago dagoelako	Zerbitzuak	Eskaria Mankomunitateari helarazten zaio eta pedaldun edukiontziak lekuz aldatzen dituzte.
Urkiko jubilatuen etxeko parean dagoen estoldak gora egiten duela euri asko egiten duenean edo euri-jasa dagoenean	Zerbitzuak	Kexa Gipuzkoako Uraki pasatzen zaio eta arazoa konpontzeko neurriak hartu dituzte
Ur Zerbitzuak ez zuen garbitu Urkiko parrokiaren parean ur beltzak atera zirenean	Zerbitzuak	Gipuzkoako Urakeko teknikari batekin ikuskatzera joanda, ez da arrastorik ikusten. Gipuzkoako Uraketik duela urtebete baino gehiago edateko ura atera zela esaten digute eta konpondu eta garbitu zutela. Ez dago ur beltzak atera zirelaren ageririk.
Errekatxuko biragunean dagoen espaloiak kuprits asko duela salatu dute; sarriago garbitzea eskatu dute	Zerbitzuak	Enpresa bat kontratatzen da eta ez labaintzeko tratamendu bat ematen du
Urkiko kioskoaren oinezkoen pasagunean, euria egiten duenean, putzua egiten dela eta ura 13. eta 15. pegoretara sartzen dela salatu dute	Zerbitzuak	Urki eta Polonia Etxeberria arteko igogailuaren obra amaitzen denean arazo hau konpontzeko beharrezko diren lanak egingo dira,.
Ubitxatik Urkirako eskaileretako sasiak kentzeko eskatu dute	Zerbitzuak	Sasiak kentzeko lanak enplegua sustatzeko pertsonalak egiten ditu urtean behin. Lan plangintza jarraituta, ezponda 2012ko abenduan garbitu zuten eta duela gutxi berriz kendu dituzte sasiak bertatik
Errekatxun, plastikoa, beira eta papera biltzeko edukiontziak jartzeko eskaera egin dute	Zerbitzuak	Auzoko bileraren ostean, Errekatxuko edukiontziak lekuz aldatu ziren eta plastikoa, papera eta ontziak birziklatzeko edukiontziak ipini ziren.
Txaltxa Zelaian, Epaitegiaren osteko espaloian eta parkearen goiko aldean baldosak egoera txarrean daudela azaldu dute, apurtuta eta solte; eserlekuak edo bankuak ere egoera txarrean daudela eta konponketa premia dutela. Eskailera mekanikoen aldea pixatoki moduan erabiltzen da eta usain txarra egoten da	Zerbitzuak	Bankuak eta baldosak otsailaren hasierarako konpondu ziren eta gero, gainera, bankuak margotu egin ziren. Mankomunitateari abisua pasa zitzaion puntu honetan garbiketari arreta gehiago jartzeko.

URKIKO AUZOKO BILERA (Urkiko parrokia, 2012/11/22)

Errekatxu kaleko hainbat lekutan arratoiak daudela salatu dute	Zerbitzuak	Arratoiak kentzeko arduradunari jakinarazten zaio beharrezko deritzon neurriak har ditzan.
Errekatxu kalean, José Antonio Iturrioz kalean eta Txaltxa zelaiaren kale-garbiketa zerbitzuak ez duela gauza handirik egiten salatu dute	Zerbitzuak	Mankomunitateak, abisua pasa ondoren, zonalde horiek segidan agertzen den maiztasunarekin eskobatzan direla informatzen du: - Errekatxu: 7 egunetik 6tan - Txaltxa Zelai: 7tik 7tan - Jose Antonio Iturrioz: 7 egunetik 6tan
J. A. Iturrioz kaleko argiteriaren koadroak atea apurtuta duela abisatu dute	Zerbitzuak	Argiteriaren koadro hori egoera onean zegoen. Apurtuta zegoena Sansaburuko frontoikoa zen eta konpondu zen..
Eguaztenetako azoka Eibarko Txikito kalean jartzeagatik kexatu egin dira eta Txaltxa zelaira eramateko eskatu dute	Zerbitzuak	2013ko matxoa ezkeroztik erdialdeko azoka errebalgo aparkalekuan egiten da.
Jose Antonio Iturrioz kalearen ostean dauden farola bik ez dutela funtzionatzen oharteman dute	Zerbitzuak	Farola horiek 2012ko abenduan konpondu ziren
Txaltxa zelai kaleko 8aren ostean ez dabilen farola bat kentzeko eskatu dute	Zerbitzuak	Farola otsailaren 12an kendu zen
Txaltxa zelaiko lorategia egoera txarrean dagoela salatu dute.	Zerbitzuak	Aldameneko eraikinaren fatxada konpontzeko lorategian ipini zen plataforma kendu zenean, lorategia txukundu zen.